

**2011-2012 IKASTURTEKO EKINTZAK**

---

**TXANTXANGORRI AISIALDI TALDEA**

## EKINTZAK

### URRIAK 28: GABA BELTZA

- 18:30-19:30 (H.H + 1.maila): IPUIN KONTALARIA Luardo behea
- 19:30 (2.maila-6.maila) “ETXE SORGINDUA” Zabel Kultur Etxea
  - Zabel plazan ipuina: gauza arraroak gertatu dira Zabel Kultur Etxean, bertara sartzen den jendea gehiago ez da irteten! Bertan bizi den gizonak bahitu egiten ditu, eta horrenbestez, aurkitu egin behar ditugu! Horretarako, barruan 5 kalabaza topatu behar dituzue gizonari emateko opari bezala.

Kalabazak etxe barruko pertsonaiak edukiko dute eta horiek lortutakoan eta hildakoari ematerakoan, honek trukean etxeke giltza emango diote etxetik irten ahal izateko.

- Taldeka sartuko dira umeak, zikloka, gazteenetatik hasi eta zaharrena.
- Pertsonaiak: Maiordomoa, hildakoa, sukaldarira, garbitzailea, umea, medikua, ehiztaria eta beltzez jantzitako espektroak.
- Zabelen banaketa:
  - Atean: Maiordomoa
  - Haur Liburutegian: Umea
  - Igogailuan: Ehiztaria
  - Komunean: Garbitzailea
  - Aretoan: Medikua
  - Beheko eskaileretan: Sukaldaria
  - Ganbaran: Hildakoa
- Prestaketa, materialak...: kandelak, telak, periodikoak, musika ekipoa, bilurrezko musika, aurpegiko pinturak, tomatea, sokak, panpinak, hariak, ispiluak...

## **AZAROAK 29**

ORDUA: 11:00-13:00

- HAUR HEZKUNTZA: LUDOTEKA

-Esnatze jolasak: pin pon pilota, tailarin bat naiz, lehoi baten bila noa...

-Maleta jolasa

-Karaokea

- LEHEN HEZKUNTZA: GAZTETXIA EDO ZABIEL

-Esnatze jolasak: pinpo pilota, tailarin bat, maritxipi...

-Karaokea

-Play back

## **ABENDUAK 26, 27 eta 28: GABONETAKO EKINTZAK**

- Abenduak 26, astelehena: MARKINAKO IGERILEKURA. Irteera 11:00 goiko paradan.
- Abenduak 27, martitzena: JOLASAK. Frontoian
  - Jolasak: Kafe frantses baten, Plof-Kataplof, Periodiko dantza, Pañuelitozka, Eskifaia, Zaldia eta zalduna, Kakantzero.
  - Abestiak: Domino abanti, Parabara, Oso ondo, Sardina bat...
- Abenduak 28, eguaztena: INUZENTE EGUNA. Frontoian
  - Inuzente eguneko panpinatxoak prestatu: marraztu, margotu, moztu... Gero, goiko plazako gabonetako zuhaitzean jarri.

## **OTSAILAK 18: KARNABALAK**

ORDUA: 11:30-13:00

- Txinatarrak Mutrikun:
  - Umeak etxetik etorriko dira beraien kabuz mozorrotuta, nahi duten bezala. Begiraleok txinatarrez mozorrotuko gara eta mozorrotu gabe etortzen diren umeei ere txinatarrez mozorrotuko diegu.
  - Kartoizko suge bat egingo dugu eta gero kalean zehar kalejiria eta desfilea egingo dugu. Kalejiran zehar musika jarriko dugu udaletxeko megafoniatik.

## **MARTXOAK 24: UDABERRIARI ONGI ETORRIA**

ORDUA: 11:30-13:30

- Eguraldi ona aprobetxatuz, ekintza hondartzan izango da eta bertan jolas desberdinak egingo ditugu.
- Egitaraua:
  - L.H: Lehenengo Samikolla joan eta esnatze jolas batzuk egin (tallarina, maritxipi). Gero hondartzara jeitsi eta jolas batzuk egin: bomba, pañuelitozka, gerria, farozka, banderazka, softbol... Ondoren, denbora libre eman.
  - H.H: Zuzenean moilara jeitsi eta zabaleran esnatze jolas batzuk egin (pinpon pilota, nik daukat etxetxo bat, lehoi baten bila noa). Gero hondartzara joan eta libre jolasten utzi hondarrarekin (gazteluak eta abar etxen), aurpegia marraztu pintxau... Parakaidasarekin ere jolas batzuk egingo dira.

## **APIRILAK 11: ASTE SANTUAK**

- Lehen Hezkuntza: MARKINARA IRTEERA
  - Haur eta gazteek gabonetako ekintzan nolako ondo pasa zuten ikusirik,

esperientzia bera errepikatuko dugu: Markinara joango gara egun pasa eta, berriz ere, bertako igerilekura joateko aprobetxatuko dugu.

- Egitaraua:
  - o 10:30 Albokan
  - o 11:00 Markinara iritsi eta segidan igerilekura joan
  - o 12:30 Dutzatu eta aldatzera
  - o 13:00-13:15 Kanpora irten, parkera joan eta bazkaldu
  - o 14:30 Jolasak parkean (euria egiten badu Laboraleko aterpera joan)
  - o 17:00 Autobusera
  - o 17:30 Mutrikura iritsi

- Haur Hezkuntza:

ORDUA: 10:30-13:30

- Protekzio Ofizialeko parkera (eguraldi txarra eginez gero Ludotekara joan)
- Ekintzak:
  - o Esnatze jolasak: nik daukat etxetxo bat, lehoi baten bila noa, maritxipi, pin pon pilota, tailarin bat...
  - o Abestiak: trenean ibiltzea, sardina bat...
  - o Jolasak: kolore kolore, kafe frantsez baten, plof kataplof...
  - o Tailerrak: marrazkiak margotu
  - o Denbora librea

## **UZTAILAK 2-19: UDALEKU IREKIAK**